

Oñatiko eragileen elkarlanerako gunea

Proiektu bakoitzak osagai propioak dauzka, etxe bakoitzeko eltzeen gisara. Bakoitzak berea landatzen du, ostera jaso eta saltsa eder bat prestatzeko. Hori da Oñatiko Udalak, herriko elkarteekin eta Bagararekin elkarlanean sorturiko Eltzia proiektuaren funtsa.

| IKER OÑATE AIASTUI |

Argazkia: Eltzia

GUZTIZ diseinatu gabeko proiektua da. Etengabeko garapen prozesua izango da amaierako forma definitzearen arduraduna. “Diseinatu eta egin” beharrean, “egin eta diseinatu” lelori heldu diote Eltzekideek. Eraikina beren esku dago; eta hortik aurrerakoa, taldeen ardura izango da.

Eltzia ez da ezerezetik sorturiko proiektua. Bere sustraiek 2010. urtean eman zuten lehen tirada. Herriko zenbait kultur elkarte lokal bila zebiltzan, beren jarduera garatu ahal izateko egoitza faltan zeudelako, edo zutena baldintza prekarioan zegoelako. Kasualitateak kasualitate, urte hartan, Mondragon Unibertsitateak bere jarduera lekualdatzea erabaki zuen. San Lorentzo auzoko eraikina hutsik gelditu zen; ETEOko egoitza zaharra Mondragon Unibertsitatearen iraganaren parte zen jada.

Egoera baliagarria izan zen herriko kultur taldeentzat: agustindarrek sorturiko eraikina erretirora bazihoan ere, berau biziberritzeko egitasmoa sortu zen herrian, herriko hainbat kultur talderen egoitza-eskaeran oinarrituta. Proiektu berri bati ekiteko erabakia hartu zuen Udalak; ordura arte herrian ikusi gabeko prozedura baten lehen hazia landatu zen. “Giltza eman eta lokala modu pasiboan erabiltzeko eskubidea eskaini beharrean, elkarteak eurak proiektuaren parte aktibo bilakatzea nahi genuen”, dio Nerea Zubia Kultur zinegotziak. Hala, kideek diseinatu zezaketzen egitasmoa jarri zen abian.

Martxan dagoenetik, Eltzia eten gabeko bilakaera ari da bizitzen. Eltzekideak dira proiektuaren gidari eta beraien eskutik, eraikinaren itxura, erabiltzaile kopurua eta proiektuaren izaera metamorfosi etenga-

bean daude. Esaterako, hasieran kultur taldeei zuzenduriko esparrua eraikitzeko asmoa bazegoen ere, prozesuak aurrera egin ahala bestelako beharrak agertu dira. Alor ugariako taldeak –herri mugimenduak edota auzo elkarteak, esaterako– erakarri ditu, besteak beste, eta egitasmoa bera kultura alorretik harago joan da, oinarriari eutsiz hala ere. Herritarrek herriarendako garatuko duten egitasmoa izaten jarraitzen du. Finean, proiektuaren filosofiak du garrantzia: Nerea Zubiaren esanetan, “gizarte eredu berri bat eraikitzeko bitarteko bilakatu da”.

Ni-tik gu-ra, Bagararen eskutik

Egitasmoko kideen arteko hasierako harremana bideratu nahian, 2013ko maiatzean Bagara kooperatiba kontratatu zuen Udalak. Bagara Debagoiena eskualdeko kooperatiba txikia da, gizarte eredu jasanga-



rrirako eraldaketa eta eraketa autonomoa oinarri dituen.

Oñatiko egitasmoan Eltzekideen arteko koordinazioa izan du zeregin nagusia. Alde batetik, herriko eragileen ikusmira ugariak bateratzeko lan egin du; bestetik, taldeei herri mugimenduen komunitateko parte izatearen kontzientzia transmititzen ahalegindu da. Elkarre hutsak diren ideia zokorarazi nahi zaie taldeei. “Ni horretatik gu honetara pasatzea”, dio Johana Olabarria Bagarako kideak. Hori lortzeko, aholkularitza zerbitzua eta lanak erazteko baliabideak eskaintzen ditu kooperatibak.

Hala ere, bateria orori agortzen zaio energia. Kasu honetan Bagarari eman zaion koordinaziorako ardurak badu iraungitze data: prozesuak aurrera egin ahala, zeregin hori elkarrean esku geratuko da. Kooperatibaren eginbeharra ibilbidetaren lehen harria jartzea izan da; hortik aurrerakoa, mugimenduek eraiki beharko dute.

Eltzia bor-borka

Egun, hamabost dira eraikina erabiltzen ari diren taldeak (Sare, Gurutze Gorria, Trikitxaranga edota Oñatiko Bertso Eskola, esaterako). Aurrerago partaide gehiagoren presentzia aurreikusten da eta horretarako aldaketa arkitektonikoak egin beharko dira eraikinean, talde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz.

Bitartean, bilkurek ez dute etenik. Proiektuko kide direnek lanean dihardute, funtzionamendua zehazteko ahaleginean. Oinarriak finkatuta daude jada. Elkarlana da fun-



Egun, hamabost dira eraikina erabiltzen ari diren taldeak (Sare, Gurutze Gorria, Trikitxaranga edota Oñatiko Bertso Eskola, esaterako), eta partaide gehiagoren presentzia aurreikusten da etorkizunean.

tza; eta bultzatu nahi dira herriko taldeen arteko elkartasuna, jakintza partekatua, osagarritasuna eta parte-hartzea.

Proiektu honetan erabaki oro da aurrerapauso, are gehiago aldaketa guztien oinarria adostasuna denean: erabaki orok jaso behar du Eltzekideen onespina eta horrek kontsentsuak bilatzera bideratzen ditu partaideak.

Denentzat espazioa, bakoitzaren beharren arabera

Eraikinaren 6.000 metro koadroetik 4.000 erabiltzea aurreikusten du Udalak oraingoz. Espazioa partekatua izango da. “Ideia hori argi izan dugu hasieratik”, dio Johana Olabarriak. Taldeak eurak izango dira espazioa noiz, nola eta nork erabili

Helburu nagusia ez da eraikinean ahalik eta elkarre gehien biltzea, “dauden horiek elkarlana zer den ulertzea baizik”

erabakitzearen arduradunak; betiere, bakoitzaren beharren arabera; eta lekua ez da taldeen arabera antolatuko, ekintzen arabera baizik.

Eltzekide guztiek ez dituzte ezaugarri berak, eta kasu batzuetan, baliabide espezifikagoen beharra dute –esaterako, argazkilaritza taldeak–. Gisako arazoei aurre egin nahian, egitasmoak azpitaldeak sortu ditu.




HOTEL***
Torre Zumeltzegi

Torre Zumeltzegi, 11
20560 Oñati
☎ 943 54 00 00

contacto@hoteltorrezumeltzegi.com
www.hoteltorrezumeltzegi.com

TXIKITIK ERAGITEN 
Argia eguna 2015



1 'Trantsizioak' erakusketa

ARGIAko artxibo historikotik aukeratutako argazkien bidez, azken 40 urteotako gertakarien berri ematen duen erakusketa ikusgai izango da egun osoz Gaztelekuan. Lau hamarkadotako eraldaketa sozial eta politikoak islatzen dituzten irudi esanguratsuz osaturik.

2 Kultur ibilaldia

Gerardo Elorzak gidatuta, Oñatiko alde zaharrean barrena ibiliko gara, eta bertako pasarte historikoak bertsoarako gai izango dira bertso eskolako kideentzat. Plazatik abiatuta, 10:00etatik 12:00etara.

3 Ginkana

Balore hezitzaileak oinarri, haur eta helduentzako jolasak egingo ditugu goizean, elkarbizitza, parte-hartzea, euskara eta kultur aniztasuna bezalako gaiak lantzeko. Ginkanaren barruan, iazko Nendo Dango tailerra errepikatuko dugu; alegia, haziak buztin bolatan bilduz lurra ereiteko teknika.

4 Herri eragileen azoka

Iaz bezala, ARGIAk harpidetzak egiteko eta materiala saltzeko gunea jarriko du, eta aurten hainbat baloreren inguruan aritzen diren herri eragileak gonbidatu ditugu haien jarduna ezagutzeko. Azoka alternatiboa Foruen Enparantzako frontoian izango da. Eguerdian ARGIAzaleen eta eragileen topaketa egingo da iritziak trukatzeko.

5 Txosna

Euskal Herriko artisaugaragardoa izango dugu, eta multinazionalen menpe dauden edarrei muzin egiten saiatuko gara, balio-kide jasangarriagoen mesedetan. Botilaratutako urik ez dugu salduko, iturriko ura izango da aukeran. Izan ere, plastiko andana sortzea eta denon ondasun naturala izan beharko lukeena negozio pribatu –eta biribil– bilakatzea dakar botilaratzea.

6 Herri bazkaria

Bertako eta garaiko elikagaiekin hornitutako bazkaria izango da, ekologikoa. Debagoienako Ereindajan ekoizle eta kontsumitzaile kooperatibaren laguntza izango dugu eta Lur-Lan baserritar elkarteak prestatuko du 200 lagunentzako mugatu dugun bazkaria. Txartelak salgai dituzu.

7 Bizi baratzea

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko galderak erantzungo ditu, 16:00etan. Axpik, Antton Olariagak eta Joseviskyk ez dute aukera galduko euren galdera ikurrak marrazteko... edo pertsonaia bihurtutako barazkiak elkarrizketan sartzeko.

8 NAN arrotzen jaurtiketa

Bazkalosteko giroan Nortasun Agiri Arrotzen Euskal Herriko II. Jaurtiketa ospatuko da. NAN txartela urrutien botatzen duenak saria izango du –iaz 29,8 metroko errekorra egin zen–. "Doke" joko ere egingo da, oñatiar eta arrasatearren arteko Erdi Aroko lehia jatorria duen jaurtiketa berezia.

Irailaren 20an Oñatin antolatuta ditugun hainbat ekintza dituzu goian, baina beste batzuk ere prestatu ditugu. Egitarau osoa www.argia.eus/argia-eguna helbidean aurkituko duzu.

Argia Egunean eragile

Argia Egunerako antolatu ditugun ekintzetan Eltziako elkarte ugari hartu du parte. Tartean dira Oñatiko bertso eskola, Oinaztu aisialdi taldea, batukada, Txirrinka edota Ortuzabala kontsumo taldea.

Zalantzak uxatzen ari dira

Herriko elkarten artean sortu den harremana ez da eraikin barneko ekintzetara mugatuko: prozesu hau herrian islatuko da. Esaterako, kultur ikuskizun berriak sor litezke, elkarlanean oinarrituriko emanaldiak, alegia.

Nolanahi, Eltziaren inguruko iritziak ez dira alde bakarrekoak. Batzuek galkarga gisa ikusi zuten egitasmoa, beren jardueratik at zegoen ardura gisa. Beste batzuek berriz, zalantzan jarri zuten proiektuaren bideragarritasuna. Egitasmoaren bilakaera ari da horrelako ezbaia disolbatzen: herriko elkarte batzuek jada eraikinean dute egoitza. Horrek egitasmoarentzat uhin positiboak zabaldu ditu gainerako taldeen artean. Proiektuaren bideragarritasuna zalantzan jartzen zutenek egungo egoera aztertu besterik ez dute. “Etorkizunean ez dugu arazorik aurreikusten. Jada hainbat talde daude eraikinean eta ongi funtzionatzen dute”, dio Mikel Urrutia Oñatz Dantza Taldeko kideak.

Eraikinetik hasi, herri osoa helburu

Hurrengo pausoari ekiteko garaia da: bere jarduera esparrua zabaldu nahian, Eltzia herrira eramateko

Elkartasuna, eraikinaren bidelagun

ELTZIA ez da eraikin honek jaso duen lehen egitasmo komunitarioa. Eraikina agustindarren esku zegoen hasiera batean. Herritarrek estimu handitan zituzten agustindarrak. Hori dela eta, osteko urteetan, eraikinak jasaniko obrak herritarren izerdi eta ekarpen ekonomikoek esker eraman ziren aurrera.

Gero, 60ko hamarkadan, etapa berri bati ekin zion eraikinak. Garai hartan, eta Don Jose Maria Arizmendiari apezaren ekimenez, Arrasateko formazio profesionaleko egoitzaren osagarri bilakatu zen. Honi esker, administrazio eta gestio heziketara bideraturiko txoko berria zuen korporazioak. Garai hartan ETEO (Eskola Tekniko Administratiboa)

izenez bataillatu zuten eraikina.

Urte tarte horretan, hala ere, garaian garaiko testuinguruak eraginda, bestelako erabilpenak ere eman zitzaizkion eraikinari. Esaterako, 1975. urtean, Francisco Francoren diktadurak eragindako egoera nahasian, herriko ikastolak jardunaren zati bat eraman zuen bertara.

Eraikuntza Mondragon Unibertsitatearen esku egon zen 2010. urtera arte. Orduan, korporazioak egoitza aldatzeko hautua egin zuen, hots, heziketa herriko beste eremu batera eramatekoa. Eraikina hutsik gelditu zen, Udalaren esku. Egoera honetan, iragana heldu, eta ekimen komunitario berri bat sartu zen eraikinean. Eltziaren txanda zen.

ahaleginak egingo dira orain proiektua aurkeztuz eta ateak irekiz. Oraindik eltzekide ez diren herritarrek erakarri nahi dituzte; lehenbizi interesa piztu eta hortik eraikina beraien ere badela transmititu.

Egitasmoaren geroz mintzatzean baina, erantzuna ez da batere argia. Bagarako kidearen esanetan, “proiektu honen etorkizuna bakoitzak jarri nahi dion energiaren arabera izango da”. Hala ere, Eltziaren arrakasta unitate kualitati- boetan neurtzea huts larria litzateke. Johana Olabarriak uste du prozesuaren helburu nagusia ez dela ahalik eta elkarte gehien biltzea,

“dauden horiek elkarlana zer den ulertzea baizik”. Eta hortaz, prozesua potentzialki amaigabea da.

Errotak biraka jarraitzen omen du haizea dagoen bitartean. Hori da egitasmoaren bultzatzaileek bilatzen dutena: Eltzia hauspotuko duten elkarteak biltzea. Etenik gabeko prozesuan murgildurik, proiektua bide onetik doala dirudi. Elkarrekin osagai ezberdinak bota dituzte eltze- ra, eta honek ez du gainezka egin. Kontrakoa. Osagai guztiek bat egiten dutela dirudi, hauen artean bakarra gailendu den arren: elkartasuna. Orain, saltsa egiten jarraitu eta pixkanaka dastatzeko ordua da. ■



ausolan MENU OSASUNGARRIAK
*Ondo jatea...
ondo bizitzea da!*

Uribarri Etorbidea, 35 · Arrasate · ☎ 943 794 611
auzolagun@ausolan.com · www.ausolan.com



Lizker
aholkulariak
asesores

Errementari Plaza, 2-3 behea
Tel: 943 71 80 52-943 71 82 06
Fax: 943 71 80 52
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
E-mail: lizker@lizker.com